

KATE MOTZEAN

GERTUKOAK

ALDUDE TB-K IKASTAROAK EGINGO DITU HIRU ASTEBURUTAN

Iparraldeko Aldude Telebistak kate partehartzailerak izan nahi du, eta horretarako bidea jorratzen hasi da. Jende berria formatze aldera, hiru ikastaro ondu dituzte asteburuetarako. Lehen, joan den asteburuan izan zen Maulen. Hurrengo, Donibane Garazin izango da apirilaren 4ean eta, Donibane Lohitzunen hirugarrena, 18an. Eskolak Iparraldeko Kantu txapelketako hiru datetan emango dituzte ikasleek ekitaldi horiek graba ditzaten. Bildutako materiala katearen programazioan sartuko dute, 2005 aldera abian jartzen denean.

MILA KATE BERRI SORTZEKO PLANA ONARTU DU PP-K

Aznarren gobernuak mila kate berri sortzeko baimena eman du, Telebista digital lokalen plan tekniko nazional berriaren bitartez. Guztiak abian jarriko balira, Espainiar estatuko biztanleriaren %87 arengana iritsiko lirake denen artean. Emisio lizentziak emate berriz, Autonomi erkidegoen eskumena izango da. Horrela, EAEn hamahiru lizentzia eman ahal izango dituzte eta, Nafarroan berriz, bost.

TELEBISTAKO GAZTE ONENAK

Iban Garate eta Nerea Alias *Beti-zu*-ko aurkezleek etxeratu dute 2004ko Gazte Saria, telebista atalean. Horrelaxe erabaki dute EITBko ikus-entzuleen botoek. Beste bi hautagaiak Klaudio Landa aurkezlea eta *Vaya Semanita* aktualitateko saioa ziren. Sari emate festa martxoaren 24an egin zuten Miramongo egoitzan, kultura eta kirol munduko hainbat gonbidaturekin.



75%

Espainiako etxebizitzan %75etan telebista aparailu bi edo gehiago dituzte. Gainera, hiritarren %79k dio telebista ikustea dela bere denborapasa nagusia aste barruan.

ZENTSURA GORRENDAKO SAIO BATEAN

Britainia Handiko Channel Four kateak gorren lengoiaiki hiru zeinu debekatu ditu, "politikoki desegokiak" direlakoan. Hain zuzen ere, homosexual, txinatar eta judutar adierazteko erabili ohi dituzten zeinuk dira debekatu dituztenak. Neurriak bete-betean eragingo dio kate horrek gorrei begira ekoizten duen *Vee-TV* saioari. Arduradunek diotenez, zeinu guztiak "kulturalki egoikiak" izan daitezzen jarri dute debekua. Gorren elkartearen ustez ordea, kolektiboaren aurkako "beste diskriminazio bat" da erabakia.



EUSKARAZKO KATEA ABIAN INTERNETEN

Internet bidez euskaraz emititzen den lehenengo telebista katea zintzilikatu dute oraintsu: www.euskaraz.tv. Doakoa da katea eta berezko programazioa du, bost kanaletan banatuta: albisteak, hitzaldiak, Expo-art, Turismoa eta Zabalik. Finantzazio iturri nagusiak publizitatea eta produktuen salmenta izango ditu. Sustatzaileak komunikazioari lotutako hiru enpresa dira.

